

A3564



**HERRI AMETSA IKASTOLAK:
KULTUR ASTEA
MONEDA BASERRIAN**

Mendiola, 1
20016 Donostia
Tfn-393520/392421
Fax-400649
herriam@ikasola.net
<http://www.jalgi.com/ikasweb/herriam>

KULTUR ASTEA

***HERRI AMETSA IKASTOLA
ETA
EUSKARA.***

1.998KO MARTXOAREN 26a

MONEDA BASERRIAN



HERRI AMETSA IKASTOLAREN HISTORIA

Mendiola, 1
20016 Donostia
Tfn-393520/392421
Fax-400649
herriam@ikasola.net
Http://www.jalgi.com/ikasweb/herriam



HERRI AMETSA IKASTOLAK: KULTUR ASTEA MONEDA BASERRIAN

Mendiola, 1
20016 Donostia
Tfn-393520/392421
Fax-400649
herriam@ikasola.net
Http://www.jalgi.com/ikasweb/herriam

60. hamarkadaren inguruan gauzak biziagotzen hasi zirenean, kultura mugimenduak surpertzzen, hitzaldiak antolatzen, kultura ekintzak burutzen, kontzertu eta jaialdiak egiten, Ikastolen mugimendua sortu zen eta gurea ere orduantxe hasi zen.

Hiru auzo, hiru ikastola.

Altza, Herrera eta Intxaurrondo auzoek garai batean ALTZA herria osatzen zuten, baina 1.940. urtean Donostiara bildu zituzten eta haren auzo bihurtu.

Biltze honek eta kanpoko zenbait eraginek (immigrazioa eta industria joerak) bakoitza bide ezberdinetatik urratzera bultzatu zituzten.

Horrela auzo bakoitzak bere ikastola sortu zuen:

HERRERAN: "Herri Ametsa Ikastola" 1.966an.

INTXAURRONDON: "Gure Nahia Ikastola" 1.968an.

ALTZAN: "Altzako Ikastola" 1.971an.

Gerora 1.975-76 urteik aurrera, baimen, kartila eta subentzioetarako indar handiago izateko elkarrekin bildu ziren hirurak. Urte batzuetan batera ibili ondoren, 1.980-81 ikasturtean Intxaurrondok bere bidetik jarraitzea erabaki zuen.

Herrerako Ikastolaren sorrera

1.966ko ekainaren 16ean Ikastola sortzeko lehen bilera zabala egin zen, bertan 25 lagun bildu ziren eta ondorengo erabaki hau hartu zen: "hurrengo ikasturtean Herrerako Ikastola martxan jarri behar zen". Hitzza beteaz 1.966-67 izan zen lehen ikasturtea "Mendizaleak" elkartearen lokaletan, ondoren J. Elosegin Elizaren lokalean, Etxeburuan, Santestebandarren etxean, Agur etxean, Antsatarranean, J. Elosegin, Maritxu Garinen etxean, azkenean Perurene Berriko egoitzara heldu arte.

Altzako Ikastolaren sorrera

Altzako gazte batzuk Ikastolaren ametsa gauzatu nahian Altzako hiru parrokitan zehar abizen euskalduna zutenen bila joan ziren, gero familia hauei beraien amets-proiektua azaltzeko. Ondoren jesuiten parrokitan egin zen lehen bilera, eta Altzako Ikastolak lehen aldiz Los Boscotarren lokaletan, 1.971ean ireki zituen ateak.

Perurene Berri

1.971-72 ikasturtean bildu ziren 3 ikastoletako ikasleak Ikastolak bere jabegoko lehen lokal hauetan.

Herri Ametsa, Elkarte Anonimoa.

1.975en Titularitate juridiko honekin elkartu ziren hiru Ikastolak.

1.977ean erosi ziren Mendiola bidetako lur sail hauek eta 1.984-85 ikasturtean Herri Ametsa Ikastolako ikasle guztiak elkarrekin egin ahal izan zuten lehenengo ikasturte hurra gaur egungo eraikuntza honetan.

Intxaurrondoko Gure Nahia Ikastolak, bere bidea.

1.984ean Gure Nahia Ikastola Herri Ametsa Ikastolaren Proiektutik kanpo gelditu zen.

Gaur eguna

Gaur egun Herri Ametsa Ikastola toki zoragarri batean dago, behar guztiak asetzeko eraikuntza, ia 600 ikasle: 2tik 16 urterartereko eskaintza ematen du.

Martxoaren 26a. Zineforuma.

Gaia: " Manuel Lekuona "

Manuel Lekuona Etxebeguren.

Euskal idazle eta erlijioso gipuzkoarra (Oiartzun, 1.894 – 1.987). Gasteizko apaiztegia apaiztu eta bertako irakasle izan zen hogeitaz urtez. Eusko Ikaskuntzako kide eta euskal aldizkarietako kolaboratzaile izan zen.

Euskaraz : (Gasteizko elizbarrutiko kristau ikasbidea. 1.918.

- *Gabon kantak*, 1.933.

- *Barbieren Sorginak*

- *Jesus haurraren bizitza*, 1.948.

- *Euskaltzaindiako sarrera hitzaldia gorotzikatik Gurutzeagara*, 1.951.

- *Zigor operarako libretoa*. 1963.

- *Gerrako nere hamabi kantak*

Gaztelaniaz: *Métrica vasca*, 1.930.

- *Literatura oral euskerika*, 1.935.

- *Del Oyartzun antiguo*, 1.959

Liturgia euskeratu zuen taldeko partaidea izan zen.

Geroaren laugarren edizioko hitzaurrea egin zuen eta Euskaltzain oso eta Euskaltzaindiko lehendakari ere izan zen.

Joan Mari Lekuona Berasategi.

Euskal poeta eta idazle gipuzkoarra (Oiartzun 1.927).

Gasteizko apaiztegia eta Erroman egiten ditu ikasketak. Donostiako apaiztegiko eta EUTGko irakasle eta euskal aldizkarietako kolaboratzaile da. Poesi liburua hauek idatzi ditu:

- *Mundua gau*, 1.966.

- *Muga beroak*, 1.973.

- *Hondarrean idatzi*. - *Mimodramak eta ikonoak*, 1.990.

Itzulpenak: - *Ezkongai*, 1.968.

Arazo indibidualak jorratuz egindako poesia idatzi du; ukito modernistak eduki arren, bertsolaritzaren neurriak erabiltzen ditu. Halere, Glasguiren eskolan lanean, hizkuntza serrealistagoa erabili du.

Euskaltzain oso da (1.987) eta Euskaltzaindiko Literatura Batzordeko arduradun da.

Euskal itulitzaile, interpretari eta zuzentzaileen elkarterako lehendakari izan da (1.987-1.990)..-

Mikel Mendizabal Cristobal.

Donostian 1.952ean jaioa.

Filosofia eta Letrak ikasketak egin ditu eta 9 urtez plastika erakustea aritu da.

Bideo erretratatzailea, bikoizketako aktorea eta zuzendaria (Humphrey Bogart eta Lee Marvini ahotsak eman die). Lehize Bideo Ekoizpenaren arduraduna da. Bere lan artean dokumental hauek:

- *Arbasoren sua*.

- *Koldo Mitxelena*.

- *Eta Manuel Lekuona*. Beste gai batzuen artean aipa daitezkeenak.-